

AOB

[POZA NAHI DIZUT AZALDU]

Poza nahi dizut azaldu
poza aitortu

Pozari buruz, Jauna,
nahi dut zurekin mintzatu

Jauna, zeure aurrean
naukazu. Begira
nazazu. Ez daukat
zuri zergatik ihardun
neure berrietaz.
Zure begiontzako
izkukurik ez da
naizen besteko nago
zure begipean
zeuk ikusten nauzuna
horixe naiz juxtu.

Begira nazazuntzat
hurbildu natzaizu
bai baitakit zure
begion begirada
zein ongarria den
naizenori ikusten
nautelarik ere
ez naute begiratzen
errukirik gabe
horregatik dut maite
zure begipea